bm buletina

26. zenbakia - 2014ko maiatza

Bularretik mintzora

Galtzagorri elkartea

1. *"Etxean kontu-kantari"*

Jolaserako lehenengo proposamenarekin, haurrak sei hilabete dituenetik aurrera hasi zaitezkete. Haurrak handitzen direnean, txikiekin jolasteko aproposa da. *"Arre-arre mandoko"* jolasak gorputzaren eitea (tonizitatea) suspertzen du. Zenbaitetan, festatxoak egiten dira etxean: ongi etorri bat, norbaiten urtebetetzea… *"Hain urrin etxe poxpola"* kanta antzezteko aproposa dugu, kantaren melodia ederra da eta haurren oso gustukoa. *Zeinentzat da azken pastel puska?* erabakitzeko kantutxo dibertigarria: *"Arriola-marriola, kin kuan kin…"* Korroan aritzeko jolasak dibertitzeko sortu dira: kantatzeko, dantzatzeko, koreografia txikiak osatzeko: *"Baketxe kalean"* ezaugarri horietan sartzen da… Bukatzeko, entzuteko, kontatzeko, amets egiteko ipuin eder bat: *"Ilargia gazta handi bat da"*. Badakizue non dauden: "Etxean kontu-kantari" atalean. Gozatu!

2. *"Ipuinez ipuin"*

Opor aurreko proposamen bat luzatu nahi dizuegu oraingoan. Txikien babesa eta haiek pairatzen dituzten arriskuak daude kontakizun honen oinarrian, eta Manuel Lekuonaren *Txuri ta gorri ta kikiriki* bilduman aurkitzen dugu: Pio-pio jolasa. Garai batean, harrapaketa jolas bat izango zen, seguruenik: gabiraia oilategian agertzen denean, oiloak babesten ditu bere txitak. Oiloa da babesa, etxea; gabiraiak txitak harrapatu nahi ditu eta haiek harantz eta honantz dabiltza ihesi, babesa aurkitzen duten arte. Oinarri hori du *Mariagoikoarenak* jolas liburuan agertzen den *Etorri da oilarra, bat eta bi* eta aurreko jolasa, hitz joko bihurtzen du Anjel Lertxundik eta ilustrazio jokoa Anton Olariagak. Antzezpen bat egitea proposatzen dizuegu guk. Ikasturte bukaeran norbaiti eskaintzeko, etxeko festa batean lanaren aurrean egiteko…

Abrite portas, klis-klas!

3. *"Gela barnean"*

Igarkizunak dira seguruenik, haur hitz-jokorik aberatsenak eskaintzen dituzten aukerak kontutan izanda. Batetik, haurrek ezkutuan gordetzen den objektu batekin jolastzen du; objektuaren izena, izana eta irudia haurraren burua argi azaltzen bada ere, ez da hala agertzen asmatu behar duenarenean… Hizkuntz hausnarketak egiteko estimulak irekitzen dira beraz, igarkizuna sortu eta igarri behar duenaren artean. Igarkizun on batek hizkuntzaren formak, esanahiak eta legeak auzipean jartzen ditu; izan ere, hizkuntzaz eraldatzen den deskribapen batean oinarritzen da. Baina zenbaitetan, nahastu egiten ditugu igarkizunak eta deskribapenak; igarkizunak aipatzen dituzunean hitz-joko, errimak, irudi poetikoak erabiltzen dituzten egiturazko ri gara. Aspaldian kaleratu eta agortu zen Xabier Olasoren Auskalo! liburua 2013an berrargitaratu zuen Galtzagorrik, berriz ere, Agurtzane Villate ilustratzailek erabiliz, Klis-klasikoak-en bilduman. Ezinbestekoa da liburu hau 5 eta 6 urte bitarteko haurren geletan.

4. *"Egitasmoa martxan"*

Euskarazko Haur eta Gazte Literaturaren Sustapenenean egindako lanagatik Urrezko Luma Saria jaso zuen ekainaren 2an Galtzagorri Elkarteak Euskadio Liburu Ganbararen eskutik. Elkarteko lehendakari Iñaki Markotegik Galtzagorri Elkarteko egitasmoetan parte hartzen dutenei eta babesten dituztenei eskerrak eman zizkien. Besteak beste, "Bularretik Mintzora" egitasmoaren bidez, irakurketaren mundu zoragarria gurasoekin batera deskubritzen hasten diren ume guztien izenean eman zituen eskerrak. Berri ezinhobea, zalantzarik gabe, ikasturteari agur esateko. Irailan gehiago!

Buletina hilero e-postaz jaso ahal izateko izena eman gure web guneko Guraso Berriak atalean.

Informazio gehiago: www.bularretikmintzora.org eta www.galtzagorri.org